

## **Ondorioetatik, bidea eta urratsak. Ezker Abertzalea, abian**

Altsasun aurkeztutako «Prozesu Demokratikoaren lehen urratsa: Ezker Abertzalearen oinarriak eta borondatea» adierazpena gehiengoz berretsi du Ezker Abertzaleko kidegoak. Euskal Herrian barrena egindako eta parte-hartze handia izan duen eztabaidari esker, aipatu adierazpenean azaldutako oinarriak eta borondatea apustu politiko zehatz eta argi batetan bilakatu dira. Horrek, Ezker Abertzaleari dagokionez, Euskal Estatuaren proiektua gauzatu ahal izateko egoerara iristeko Prozesu Demokratikoa ireki du.

Ezker Abertzalearen eztabaidak, ondoan egindako zenbait adierazpen eta ekintza zehatz batzuekin batera, herritarren artean itxaropena sortu du azken hilabeteotan. Era berean, irekitzen ari den aro politiko berriari hauspoa emanez zenbait eragileren eskutik sortutako ekimenak ere posible egin ditu.

Alabaina, ezin dugu ahanzi irekitzen ari garen fase berriak Estatuak eta haien kudeatzaileak tematuta diren ukapen eta eskubide zapalketa estrategia dituela aurrez aurre. Begi-bistakoa da konfrontazio politikoaren beldur direla, eta horregatik immobilismoan eta blokeo iraunkorrean ito nahi gaituzte, errepresio estrategia areagotuz. Tranpan ez erortzea eta aldaketa politikoa itzulezina egitea da gure ardura.

### **Eztabaidaren ondorioak**

Ezker Abertzaleko militantziaren eta oinarri sozialaren eztabaidatik ateratako ondorioak mamitsuak izan dira, horiek ondoko puntuetan laburbil daitezke:

- 1.- Azken 30 urteko eta egungo egoeraren azterketaren ondorioz, gure borroka eta lanaren ondorioz, gaur egun aldaketa politikoaren eta sozialaren aldeko apustu indartsua egiteko baldintza objektiboak izan badirela irmoki baieztatu dezakegu. Horrek askapen nazionalerako eta sozialerako prozesua beste fase politiko batean kokatzen du; ezkerreko independentistok, berriro ere, erantzukizun historikoarekin aurre egin behar diogun beste fase politiko batean.
- 2.- Fase aldaketarako lanabesa Prozesu Demokratikoa da. Borroka eta indar metaketa, negoziazioa eta akordioa dira Prozesu Demokratikoa sendotzeko, garatzeko eta burutzeko ardatzak.
- 3.- Bere garapenerako, Prozesu Demokratikoak aldebiko eta alde askotako akordioak exijituko ditu, taktikoak zein estrategikoak, bai Euskal Herriko alderdi, eragile sozial eta sindikatuekin, bai nazioarteko komunitatearekin eta Espainiako zein Frantziako estatuarekin, azken hauekin gatazka gainditzeko negoziazio fasea iritsiko denean.

### **Zehaztutako bidea**

Marko demokratikorantz bideratuko den aldaketa politikoa gauzatzeko erronkari erantzun beharrak hurrengo urteotan egin beharreko bidea marraztera eraman gaitu:

- 1.- Prozesu Demokratikoa hastea Ezker Abertzaleak hartu duen aldebakarreko erabakia izan da, eta ez dago alde zuzeneko inongo akordiori eta konpromisori lotuta. Ezker Abertzalearen ustez, aldebakarreko konpromisoak hartzeak Prozesu Demokratikoa gero eta gehiago gorpuztuko duten elkarguneak eta dinamika partekatuak bultzatuko ditu. Aldi berean, gure aburuz, erabaki honek sortuko duen dinamikari esker, aldaketa politikoa nahi ez duten edo behar duen sakontasunik izan ez dezan berau mugatu nahi dutenen setakeriak sortutako oztopoei eman beharreko erantzuna modu eraginkorrez egituratu

ahalko da. Gaur egun jada badiren eragozpenei eta etorkizunean azalduko direnei ere erantzun ahalko da.

2.- Prozesu Demokratikoa egiazki garatzeko berme bakarra indar metaketa eta aktibazioa da. Ekintza batasunaren eta herri aktibazioaren indarrak erdietsaraziko du marko demokratikoa.

3.- Gure helburu politikoak erdietsi ahal izateko indar bilketak eta herri aktibazioak izan behar duten tamaina lortzeko, gure ustez, soilik bitarteko politikoak eta demokratikoak garatuko dituen estrategia politiko herritar bat planteatu behar da.

4.- Oraintxe irekitzen ari den ziklo aldaketa borroka molde eta moduei ere badagokie. Hala, askapen nazionalerako eta sozialerako mugimendua ekinbide politiko hutsean oinarritu behar da; eta masa borroka, borroka instituzionala eta borroka ideologikoa, indar harremanen aldaketa eta nazioarteko babes bilatzea hartu behar ditu lanabes bakartzat. Indar antolaketa, metaketa eta aktibazioa borroka molde horietatik bideratu behar dira.

5.- Prozesu Demokratikoaren apustuak euskal nazioaren eraikuntzan dimentsio ezberdinetan egin beharreko lana barnebiltzen du. Gure apustua aldaketa sozialaren erronkari indarrez heltzeko bidea ere bada. Ezkerreko independentistentzat, horiek guztiak askapen nazionalerako eta sozialerako prozesuaren enbor bera dira.

6.- Euskal Herriaren determinazio askearen bidea egitera goaz. Autodeterminazioa ez da eskubidearen erabileraren une zehatzera mugatzen, eta ez da ulertu behar inoiz iristen ez den etorkizuneko helburu estatiko gisa. Gaurtik hasita, eta haren erabilerarako akordioak eta haren emaitzak betetzea ekarriko dituen bidean, euskal herritar guztien erabakitzeo eskubidea prozesu bat dela eta, aldi berean, Prozesu Demokratikoaren muina dela ulertu behar da.

## **Lehen urratsak**

Prozesu Demokratikoaren ibilbideari, lehen unetik, ekimen eta aurrerapen zehatzekin ekin behar zaio. Hortxe kokatzen ditugu dagoeneko bide horretan egiten ari diren urratsak eta berandu baino lehenago egin beharrekoak:

1.- Indar bilketa eta herri aktibazioa prozesuaren bermeak izanda, oso positibotzat jo behar ditugu sektore sozialentzat eta herritarrentzat elkarlan, parte-hartze eta mobilizazio guneak irekitzea helburu duten ekimenak. Jadanik halako ekimen batzuk martxan dira. Ekimen horiek sentsibilitate eta ibilbide politiko ezberdinetatik -bakoitza bere azterketatik eta konpromiso mailarekin- ari dira sortzen, eta etorkizunean ere sortuko dira. Elkarrenganako errespetuak eta konfiantzak garrantzi handia izan behar dute.

Prozesu Demokratikoak babes sozial zabala behar du. Egoera demokratikorantz urratsak egin nahi dituztenen alde arituko den babes soziala behar du. Euskal Herriko zein atzerriko -bereziki Espainiako eta Frantziako Estatueto- iritzi publikoan positiboki eragiteko gero eta handiagoa izango den olatua behar du. Eragileek beharrezko diren konpromisoak hartzeko akuilu lana egingo duen herri eskaera behar du. Blokeo egoerak indarrean jarri nahi dituztenen jokabidea zailduko duen eta inposizioa zein esku-sartzeak galaraziko dituen herri presioa behar du. Prozesu Demokratikoa garatu ahal izateko beharrezko diren gutxieneko demokratikoak lortzeko jendarte mobilizazioa behar du. Eta, dagokion unean, herri borondateari jarri nahi ahalko zaizkion mugak altxaraziko dituen herritarren bultzada behar du.

2.- Nazioartetik etorri berri den ekarpena Prozesu Demokratikoaren lehen uneotan lehen mailako osagaia izan da. Hori dela eta, hauxe esan nahi du Ezker Abertzaleak:

- Nazioarteko pertsonalitateek Euskal Herriak pairatzen duen egoera politikoaz kezkatu, nazioarteko agendan sartu eta gatazkaren konponbidearen aldeko proposamena egin izana euskal jendarteak pozik hartu duen berria da.
- Biziki eskertzen du burutu berri duen eztabaidaz egiten den balorazioa.
- Ezker Abertzaleak beste behin adierazten du Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoari konponbidea bilatzeko prestutasuna duela, horretara zuzendutako estrategia politikoa erabaki duela -“Zutik Euskal Herria” ebazpenean jasotakoa- eta gauzatzeari ekin diola.
- “Bruselako Adierazpena” sinatzen duten nazioarteko pertsonalitateek ETA zein gobernu espainiarrari egindako eskaera publikoek erantzun eraikitzailea jaso beharko luketela uste du Ezker Abertzaleak.
- Berretsi nahi du Euskal Herriak bizi duen gatazka Frantziar zein Espainiar Estaturen mendeetako inposizioaren ondorio dela eta errepresio estrategian tematu izanak larritzen duela.

3.- Gatazka politikoari konponbide justu eta iraunkorra emateko Ezker Abertzaleak Anotako eredia erreferentzia gisa hartzen du. Horrenbestez, zehaztutako bi eremuetan elkarrizketa politikoa eta negoziazioa abiatzeko egin beharreko harremanak egitea beharrezkotzat jotzen dugu.

ETAren eta Estatu espainolaren arteko negoziazio eremuan aurrera egitea gogoan (desmilitarizazioaz, preso eta iheslari politikoek etxeratzeaz eta gatazkak eragindako biktima guztiei trataera bidezkoa eta zuzena emateaz aritu behar duena), esperientziak hauxe erakutsi digu: desadostasunei erantzuteko eskemak (Estatuaren kasuan errepresioaren aktibazioarekin eta ETAren kasuan ekintza armatuekin berriro hastearekin) ez duela elkarrizketan blokeoak gainditzea lortu. Aitzitik, blokeo egoera are handiagoa eragin du, aldeak konponbidetik urrundu dira eta kolapso egoera indartu da. Eskema hori gainditu beharra dago eta norabide horretan, Mitchell Senatariaren printzipioak oztupoak eraginkorki gainditzeko erreferentzia markoan bihurtzen dira.

Ezker Abertzaleak erabateko prestutasuna erakusten du euskal indar politiko guztien artean, baldintza berdinetan, eta elkarrizketa eta negoziazioa bideratzeko dinamikari ekiteko, marko demokratikoa eratzea ahalbidetuko duen akordio politikoa lortzearen. Marko demokratikoari esker, eta herri borondatea izanik muga bakarra, euskal jendarteak bere etorkizuna libre eta demokratikoki erabaki ahalko du.

Azaroaren 14an Altsasun egindako lehen agerraldiaren ondotik, gatazkaren konponbideari buruzko adierazpen berri honen bitartez, Ezker Abertzaleak prozesu baketsu eta demokratikoaren aldeko bere konpromisoa argi eta garbi azaldu nahi du, euskal jendarteak askatasunez eta inolako esku-hartze edota indarkeriak gabe bere etorkizuna erabakitzea ahalbidetuko duen egoerara iristeko.

**Ezker Abertzalea,  
Euskal Herrian, 2010eko apirilaren 24a**